



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abuztuaren 19a

85. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 2007ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (13. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (26. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **2007ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako 2007ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **2007ko Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina**

#### **Aurkibidea**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Lanaren helburuak, norainokoa eta mugak (2. or.).
- III. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (4. or.).
  - III.1. Antolaketa-egitura (4. or.).
  - III.2. Araudia (6. or.).
- IV. Toki entitateen esparruan eginiko fiskalizazio-jarduketek laborpeneko oroitidazkia (7. or.).
- V. Toki sektore publikoaren finantza egoera (8. or.).
- VI. Gomendioak (11. or.).
  - 1. gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko txostena.
  - 2. gehigarria. Nafarroako udal guztien 2007ko finantza egoera.

(Oharra: Aipatutako eranskinak foru-parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta web helbide honetan:

[www.cfn Navarra.es/camara.comptos](http://www.cfn Navarra.es/camara.comptos)).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako toki sektore publikoaren 2007ko ekitaldiari buruzko txostena Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorritik egin da.

Txosten hau egin da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko (TAFL) 350.2 artikulua esaten duena betetzeko, hark ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Comptos Ganberak Nafarroako toki entitateen esparruan egin dituen fiskalizazioko eta kontrolako jarduketek berri ematen duen laborpen-txostena.

Azterketa-lana 2010eko urtarrilean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioako Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

#### **II. LANAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK**

Lanaren helburuak hauexek dira:

a) Ganbera honek Nafarroako toki entitateen 2007ko ekitaldiaren esparruan eginiko fiskalizazioko eta kontrolako jarduketek laborpeneko oroitidazkia aurkeztea.

b) Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari Nafarroako toki entitateen 2007ko antolamenduari eta finantza-egoerari buruzko ikuspegi bat eskaintzea.

c) Parlamentuari, gobernuari eta Nafarroako toki entitateei gomendio batzuk proposatzea, toki

entitateen kudeaketa hobe izan dadin bideratzeko.

Honakoak izan dira lanaren norainokoa eta mugak, helburuei dagokienez:

a) Eginiko fiskalizazioei buruzko laburpen-oroitidazki bat aurkezteko helburuari dagokionez, lanaren norainokoa ganbera honek fiskalizatutako 15 udalen 2007ko ekitaldiko kontu orokorra da, zeina honakoek osatzen baitute:

– Udalaren beraren kontua eta haren erakunde autonomoena.

– Merkataritzako elkarteena, horien kapitala oso-osorik kasuko toki entitatearena bada.

– Eranskinak.

Honakoak izan ziren fiskalizatutako 15 udalak eta haien menpeko enteak:

| Udala         | NPAO. Zk. (data)   | Biztanleak 07-01-01eko erroldaren arabera | Erakunde autonomoa  | Gehiengoa duen enpresa publikoa  |
|---------------|--------------------|---|---|--|
| Altsasu       | 68(09/06/30)       | 7.527                                     | Zahar-etxea<br>Musika Eskola  |  |
| Antsoain      | 68(09/06/30)       | 10.088                                    | Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua<br>Euskara Sustatzeko Patronatua<br>Sexu Hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua |  |
| Barañain      | 83(09/08/24)       | 21.844                                    | Lagunak Udal Zerbitzua<br>"Luis Morondo" Musika Eskola  | - Baraberri SL (jarduerarik gabe)  |
| Baztan        | 66(09/06/25)       | 7.847                                     | Zaharrentzako Egoitza<br>Baztan Ikastola  |  |
| Berriozar     | 81(09/08/18)       | 8.636                                     |   |  |
| Burlata       | 80(09/08/12)       | 18.337                                    | Kirol Patronatua<br>Kultura Patronatua  | Sociedad urbanística Municipal   |
| Corella       | 85(27/08/09)       | 7.686                                     | San José zaharrentzako egoitza  |  |
| Lizarra       | 85(09/08/27)       | 13.931                                    | Julián Romano Musika Patronatua   | Entidad gestión desarrollo municipal y socioeconómico (jarduerarik gabe)                                   |
| Uharte        | Argitaratzeko dago | 5.157                                     | Kirol Patronatua<br>Musika Patronatua   | Sociedad municipal urbanística Aracea<br>Urarte Desarrollo Urbano<br>Mokarte aparcamientos<br>Subterráneos |
| Iruña         | 111(09/11/09)      | 194.894                                   | Hirigintza Gerentzia<br>Haur eskolak  | Comiruña SA<br>Mercairuña SA<br>Animsa<br>Pamplona Centro Histórico  |
| Zangoza       | 81(09/08/18)       | 5.128                                     | Zahar-etxea<br>Musika Eskola<br>Kirol Patronatua  |  |
| Tafalla       | 82(09/18/20)       | 11.115                                    | Musika Eskola<br>Kultura Patronatua<br>Kirol Patronatua   | Ciudad Deportiva Tafalla SA  |
| Tutera        | 98(09/10/07)       | 32.760                                    | Uren Udal Batzarra<br>Castel-Ruiz Kulturgunea   |  |
| Atarrabia     | 85(09/08/27)       | 10.226                                    |   |  |
| Zizur Nagusia | 82(09/08/20)       | 13.189                                    | Musika eskolaren patronatua<br>Kultura Patronatua<br>Ardoi Kirol Patronatua   |  |

Fiskalizatutako 15 toki entitateen populazioak –guztiak ere 5.000 biztanle baino gehiago dituzte– 368.365 biztanle egiten du, eta Nafarroako udal guztietako 605.876 biztanleen ehuneko 61 egiten du, 2007ko urtarrilaren 1eko errolda ofizialaren arabera.

Halaber, auditoria egin zaien udalen menpeko 27 erakunde autonomo fiskalizatu ziren. Erakunde horiek, izan ere, Nafarroan 2007. urtean dauden 72. erakundeen ehuneko 37 egiten dute.

b) Toki sektore publikoaren finantza egoera erakusteko helburuari dagokionez, norainokoa Nafarroako toki entitate guztien kontu orokorra da. Horri dagokionez, Toki Administrazioiko Departamentuak Parlamentura igorri zuen 2007ko ekitaldiari dagokion Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena.

Toki sektore publikoaren egoera finantzarioari buruzko azterlanaren norainokoaren mugak ondokoak dira:

– Ez daukagu informaziorik 2007ko ekitaldiko kontuak Nafarroako Gobernuari igorri ez zizkieten toki entitateei buruz. Hauexek dira:

– Udalerriak: Imotz, Xabier, Olloibar, Petilla de Aragón eta Zugarramurdi.

– Elkarteak: Aezkoa ibarreko Batzarra, Lokiz mendilerroko Batzarra eta Aralarko Batasuna.

– Mankomunitateak: Auñamendiko Mankomunitatea, Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomuni-

tatea eta Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea.

– Toki entitate guztiek ez dituzte aurkeztu udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu bate-ratuak.

### III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA.

#### III. 1 ANTOLAKETA-EGITURA

Toki sektore publikoa arautzen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean xedaturikoaren arabera, eta ondoko toki entitateez osatua dago:

- Udalak, zeinak lurralde-antolamenduaren oinarriko toki entitateak baitira.

- Kontzejuak.

- Bardeetako Elkarteak, Aezkoako Elkarteak, Erronkaribarko Mankomunitatea eta Zaraitzuko Unibertsitatea.

- Mankomunitateak.

- Udal elkarteak.

- Administrazio-barrutiak.

Toki Administrazioiko Departamentuak emanda-ko datuen arabera, ondokoak ziren 2007ko abenduaren 31n zeuden toki entitateak eta haien zerbitzuak emateko sorturiko erakundeak:

| Toki entitateak | Menpeko erakundeak |                   |
|-----------------|--------------------|-------------------|
|                 | Erakunde autonomoa | Enpresa publikoak |
| Udalerriak      | 272                | 24                |
| Kontzejuak      | 353                |                   |
| Mankomunitateak | (1) 67             | 5                 |
| Udal elkarteak  | 14                 |                   |
| Guztira         | 706                | 29                |

(1) Zazpi mankomunitatek ez dute jarduerarik.


Horretaz gain, 2007an baziren hamaika partzueko, toki entitateek sorturikoak beste administrazio publiko, elkarte, fundazio edo entitate pribatu batzuekin batera, irabazi asmorik gabe, interes komuneko helburuak betetzeko.

Toki sektore publikoaren 2006ko egitura izandako aldaketei dagokienez, 2007an sortu zen

Cadreita eta Villafrancako administrazio-zerbitzuen udal elkarteak.

Bestalde, Nafarroako hiri hondakin solidoak tratatzeko partzuegoa sortu zuten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta sei mankomunitatek.

Grafikoki, hona hemen Nafarroako toki sektore publikoak 2007ko abenduaren 31n zuen egitura:



2007ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalerrien populazioa, errolda ofizialeko datuen arabera, 605.876 biztanlekoa zen. Ondoko taulan jasotzen da populazio-tarteen arabeko udalen kopurua:

| Populazio-tarteak     | Udalerri kop. | Biztanleria    | %, guztizkoaren gainekoa |
|-----------------------|---------------|----------------|--------------------------|
| <100                  | 31            | 1.843          | 0,30                     |
| 100-199               | 60            | 8.584          | 1,42                     |
| 200-499               | 62            | 19.724         | 3,26                     |
| 500-999               | 34            | 24.874         | 4,10                     |
| 1.000-1.999           | 27            | 37.047         | 6,11                     |
| 2.000-2.999           | 24            | 60.201         | 9,94                     |
| 3.000-4.999           | 13            | 47.794         | 7,89                     |
| 5.000-9.999           | 12            | 79.425         | 13,11                    |
| 10.000-24.999         | 7             | 98.730         | 16,29                    |
| 25.000-100.000        | 1             | 32.760         | 5,41                     |
| 100.000 baino gehiago | 1             | 194.894        | 32,17                    |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>272</b>    | <b>605.876</b> | <b>100</b>               |

Nafarroako udalerrien ehuneko 69k –187 udalerrri dira– 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte.

Udalerrri konposatuak 60 dira, eta 353 kontzejuk osatzen dituzte. Kontzeju horiek guztiak 1.000 biztanle baino gutxiagoak dira.

Udalen eta kontzejuen tamaina txikiak dakar baliabide mugatuak izatea, bai giza baliabideak bai finantzarioak, bai eta haien eskumenak kudeatzeko administrazio-egitura egokia ez izatea ere. Gabezia horiek eragozten dute zerbitzuak eragin-kortasunez eta efizientziaz ematea.

2007ko azaroaren 23an, Nafarroako Parlamentuak Erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen toki entitateen finantzaketari eta udalerrien mapa modernizatzeko beharrari buruzko proposamen bat aurkez zezan.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko Toki Administrazioaren administrazio– eta eginkizun-berrantolamenduari buruzko azterlan bat aurkeztu zuen 2008an.

Azterlan horretan esaten denez, Nafarroako udalerrien atomizazioak eragin zuzena eta kaltegarria du udal zerbitzuak ematerakoan. Gainera, arazoa larriagotu egiten da, Nafarroako udalerrri eta kontzeju gehienek populazio txikia baitute. Ondorioz, gaur egun indarrean dagoen Toki Administrazioaren sistemak ez du ahalbidetzen zerbitzuak modu eraginkorrean ematea, eta ez du ziurtatzen herritar guztiek zerbitzu berberak eta kalitate berarekin jasotzea.

### III.2 ARAUDIA

Atal honetan agertzen da Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa zaien oinarritzko araudia, bai eta 2007an onetsitako arau nagusiak ere.

- Toki esparruko araubide eta administrazioari eta ekonomiaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen esparruko araubideei dagokienez, honakoak dira aplikatzekoak:

6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa.

270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak, aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitate-instrukzio orokorra

eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuko Instrukzioaren onesteari buruzkoak, hurrenez hurren.

Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, Toki Administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduz onetsitakoa.

Aurrekontu-orekari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea.

- Administrazio elektronikoaren alorrean, Herri-tarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoan bitartez eskuratzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea onetsi zen.

Lege hori oinarritzkoa da, bere azken xedapenetako lehenean ezarritakoaren arabera; beraz, azken xedapen horretan aipatzen diren artikulua administrazio publiko guztiei aplikatzekoak dira.

- Administrazio-kontratazioaren esparruan, Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean ezarritako berezitasunekin. Arau honek toki-kontratazioaren alorrean jadanik existitzen diren espezialitateak Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea egokitzen ditu, eta arau-esparru berriak bai oro har toki-kontratazioarako bai zur eta egurretako aprobetxamenduen arloko ondare-kontratazioarako eskaintzen dituen tresna batzuk garatzen ditu.

Estatuan, eta oinarritzko legeriari dagokionez, Sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak araudi berria ezarri zuen kontratuen arloan, eta toki entitateen kontratazioari buruzko arau berariazkoak jasotzen ditu. Arau horren bidez, indargabetu egin zen Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legean kontratatzeko organo eskudunei buruz ezarritakoa.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

2007an, Nafarroako polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea onetsi zen. Lege horretan arautzen da Polizia Kidegoetako Langileen Estatutua, kidego horientzako estatutu berezi eta berariazko gisa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutu orokorretik bereizia.

- Hirigintzaren arloan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legea indarrean sartu zen 2007ko uztailaren 1ean eta indargabetu egin zituen Lurzoruaren Araubideari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1988 Legea eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitazko Desjabetzapenari buruzko Legearen zenbait artikulua. Halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatu zuen zenbait alderdiri dagokienez, hala nola udal organoek hirigintza-hitzarmenak onesteko duten eskumena, higiezinaren trukaketa, bateraezintasunen araubidea eta korporazioko kideen eta tokiko zuzendaritza-kideen ondasun- eta jarduera-aitorpenak.

- Dirulaguntzen arloan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

- Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak Nafarroako Administrazio Publikoen artxiboak eta dokumentazioa arautzen ditu, eta Nafarroako toki entitateen dokumentazioaren kudeaketa-irizpideak zehazten ditu.

#### **IV. TOKI ENTITATEEN ESPARRUAN EGINIKO FISKALIZAZIO-JARDUKETEN LABURPENENKO OROITIDAZKIA**

Nafarroako Comptos Ganberak txosten honen norainokoari buruzko atalean agertzen diren 15 udalerrien 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa (finantzarioa eta legezketasunari buruzkoa)egin du.

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoan inguruan:

a) Ea kasuan kasuko udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak ondarearen, egoera ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontuaren likidazioaren eta 2007ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren irudi zehatza ematen duen, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

b) Ea kasuko toki entitateak legeak bete ote dituen 2007ko ekitaldian izandako jarduera finantzarioan.

Fiskalizazioaren emaitzak txosten batean jaso ziren eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren webgunean argitaratu zen.

Toki entitateei buruz eginiko 15 txostenetatik, Berriozarko Udalarenean bakarrik eman zen aldeko iritzia. Gainerako 14 udalei buruzko txostenetan ohartarazpen bat edo gehiago egin ziren, kontu orokorrari buruzko gabezia esanguratsuak zirela eta.

Hona hemen eginiko ohartarazpen nagusiak:

- Inbentarioa eguneratu gabe egotea. (12 entitate)

- Egoera-orri bateratuak ez egitea. (4 entitate)

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktualak. (berariazko aurreikuspen-sistemak dituzten 3 entitateak)

Hona hemen Comptos Ganberak bere fiskalizazio-txostenetan eginiko gomendio nagusiak:

Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

- Kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea aurrekontu orokorra. (11 entitate)

- Aurrekontuaren likidazioa hurrengo ekitaldiaren martxoaren 1a baino lehenago onestea (3 entitate), eta kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailaren 1a baino lehenago onestea (4 entitate).

- Oroitidazkiaren edukia osatzea, kontu orokorra egoki interpretatu eta ulertzeko behar adina informazio emateko. (6 entitate)

- Kontabilitatearen egoera-orri bateratuak egin eta aurkeztu behar dira. (4 entitate)

- Kreditu-aldaketak, horien argitaratzea barne, eragina duten ekitaldiaren abenduaren 31 baino lehen izapidetzea. (3 entitate)

Ibilgetua eta inbentarioa

- Ondasunen eta eskubideen udal inbentarioa eguneratu behar da. Udal inbentarioa kontabilizatuak ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira. (11 entitate)

- Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezarri behar dira. (8 entitate)

- Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitu behar dira. (5 entitate)

- Udal ondasunak kasuan kasuko erregistroetan inskribatu behar dira. (8 entitate)

*Langileria*

- Kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar da plantilla organikoa. (3 entitate)

- Plantilla organikoa langileria-erloko egiazko beharretara egokitzen den aztertu behar da. (4 entitate)

*Administrazio-kontratazioa.*

- Kontratuaren esleipena kontratazioari buruzko araudian ezarritako prozedurari jarraikiz egin behar da. (5 entitate)

- Kontratazio administratiboa erregulatzen duen arautegiari egokitu behar zaio, eta arauan eskatutako baldintzak eta dokumentazioa bete behar dira kontratu guztietan. (3 entitate)

- Indarrean dauden kontratuen erregistro eguneratua mantendu behar da, haien denborazko mugak eta gehienezko luzapenak kontrolatu ahal izateko, baita isilbidez gehienezko epearen gainetik luzatutako kontratuak erregularizatzeko ere. (4 entitate)

- Hurrengo ekitaldietarako inbertsio-aurreikuspenak planifikatu behar dira. (3 entitate)

*Hirigintza*

- Lurzoruaren Udal Ondarea eratu eta kudeatu behar da udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik; sarrerak eta irteerak erregistratu egin behar dira, eta ondasunok indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabili direla frogatu behar da. (10 entitate)

- Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortu behar da. (5 entitate)

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea. (8 entitate)

*Udalaren antolaketa***Diru-sarrerak**

|   |   | Euroak, milioitan |        |        |
|---|---|-------------------|--------|--------|
|   | Kapitulua   | 2007              | 2006   | Aldea  |
| 1 | Zuzeneko zergak                                       | 148,40            | 143,89 | % 3    |
| 2 | Zeharkako zergak                                      | 56,96             | 52,89  | % 8    |
| 3 | Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 130,79            | 127,38 | % 3    |
| 4 | Transferentzia arruntak                               | 266,82            | 248,25 | % 7    |
| 5 | Ondareko diru-sarrerak                                | 42,28             | 58,80  | - % 28 |
|   | Diru-sarrera arruntak                                 | 645,25            | 631,21 | % 2    |
| 6 | Inbertsioen besterentzea                              | 70,11             | 101,71 | % -31  |
| 7 | Kapital-transferentziak                               | 294,40            | 190,67 | % 54   |
| 8 | Finantza-aktiboen aldaketa                            | 16,98             | 5,90   | % 188  |
| 9 | Finantza-pasiboen aldaketa                            | 59,29             | 25,05  | % 137  |
|   | Kapitaleko diru-sarrerak                              | 440,78            | 323,33 | % 36   |
|   | Diru-sarrerak, guztira                                | 1.086,03          | 954,54 | % 14   |

- Gaur egungo sozietate-egiturari eustea kome ni den aztertzea, alderdi hauek kontuan hartuta: zenbateko balio erantsi ekonomiko eta soziala ematen duten, aurreikusitako helburuak betetzen diren eta eraginkorrak diren, eta kudeaketa-eredu hori interes publikoaren helburuetara erabat egokitzen den. (2 entitate)

*Menpeko erakundeak*

- Udalak bere erakunde autonomoen jardueraren gain egin beharreko kontrola behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea. (3 entitate)

- Udalaren sozietate publikoen barneko kontrola indartzea, haien jarduerak araudia –hirigintzari eta administrazio-kontratazioari buruzkoa, nagusiki– betetzen duela bermatzeko, batez ere hirigintzaren arloa kudeatzeko sorturiko udal enpresa publikoak. (2 entitate)

*Udal zerbitzuak*

- Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea. (4 entitate)

**V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA**

Toki sektore publikoaren egoera finantzarioaren azterketa Toki Administrazioiko Departamentuak eginiko txostenean oinarritzen da. Aipatu txostena eranskinean agertzen da.

Hona hemen toki entitateen 2007 eta 2006 urteetako gastu eta diru-sarrera ez-bateratuak, kapitulu ekonomikoen arabera bildurik:



Zergek 2007an izandako diru-sarrera guztien ehuneko 19 egiten dute; tasak eta prezio publikoek, berriz, ehuneko 12.

Diru-sarrera guztien ehuneko 52 transferentzietatik zetorren; horietatik ehuneko 25 transferentzia arruntak ziren, eta ehuneko 27, berriz, inbertsio-gastuak finantzatzeko kapital transferentziak ziren.

Gainerako ehuneko 17a inbertsioen besterentzeari, finantza-pasiboek eta ondareko diru-sarrereri dagokie.

Hona hemen hirigintza-jardueratik eratorritako diru-sarreretatik batzuk, zehazki kapital-transferentzien kapitulu ekonomikoan kontabilizatutakoak:

| Euroak, milioitan                         |        |       |       |
|---|--------|-------|-------|
|   | 2007   | 2006  | Aldea |
| Urbanizazio kuotak                        | 121,58 | 49,11 | % 148 |
| Hirigintzako aprobetxamenduak eskudirutan | 9,22   | 10,22 | % -10 |
| Guztira                                   | 130,8  | 59,33 | % 120 |

## Gastuak

| Euroak, milioitan                         |          |        |       |
|---|----------|--------|-------|
| Kapitulua                                 | 2007     | 2006   | Aldea |
| 1 Pertsonal-gastuak                       | 230,72   | 221,08 | % 4   |
| 2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 238,26   | 224,81 | % 6   |
| 3 Finantza-gastuak                        | 8,59     | 6,58   | % 31  |
| 4 Transferentzia arruntak                 | 73,88    | 66,11  | % 12  |
| Gastu arruntak                            | 551,45   | 518,58 | % 6   |
| 6 Inbertsio errealak                      | 534,8    | 336,45 | % 59  |
| 7 Kapital-transferentziak                 | 28,99    | 13,86  | % 109 |
| 8 Finantza-aktiboen aldaketa              | 13,24    | 22,02  | % -40 |
| 9 Finantza-pasiboen aldaketa              | 23,04    | 27,12  | % -15 |
| Kapital gastuak                           | 600,07   | 399,45 | % 50  |
| Gastuak, guztira                          | 1.151,52 | 918,03 | % 25  |
| Funtzionamendu gastuak (1+2+4)            | 542,86   | 512    | % 6   |
| Inbertsioak (6+7)                         | 563,79   | 350,31 | % 61  |
| Finantza-eragiketak (3+8+9)               | 44,87    | 55,72  | % -19 |
| Gastuak, guztira                          | 1.151,52 | 918,03 | % 25  |

2007ko ekitaldian, toki entitateen gastu guztien ehuneko 46 inbertsio errealei zegokien, ehuneko 21 zerbitzuen eta ondasun arrunten erosketari, eta ehuneko 20 pertsonaleko gastuei. Finantza-eragiketari buruzko gastuek gastu osoaren ehuneko 4 egin zuten.

2006koekin alderatuta, gastuek ehuneko 25 egin zuten gora, nagusiki inbertsioen hazkundera dela-eta. Gastu arruntek ehuneko 6 egin zuten gora.

2007an eta 2006an sorturiko gastuak ondoko xedeetara bideratu ziren –gastu osoaren portzentajea adierazten da–:

| EGINKIZUNAK                          | 2007  | 2006  |
|--------------------------------------|-------|-------|
| Etxebizitzak eta Hirigintza          | % 31  | % 26  |
| Kultura eta kirola                   | % 15  | % 14  |
| Erkidegoaren ongizatea               | % 10  | % 13  |
| Segurtasuna eta gizarte babesa       | % 9   | % 11  |
| Entitatearen administrazio orokorra  | % 8   | % 9   |
| Hezkuntza                            | % 6   | % 7   |
| Finantza-karga                       | % 2,7 | % 3,4 |
| Oinarrizko azpiegiturak eta garraioa | % 2,5 | % 0,9 |

Gastua egin zuen toki entitate motaren arabera, 2007an sorturiko gastuaren ehuneko 88 udalerriek egin zuten, ondoko datuetatik ondoriozta daitezkeen moduan:

| TOKI ENTITATEA   | Euroak, milioitan |        |
|------------------|-------------------|--------|
|                  | 2007              | 2006   |
| Udalak           | 1.012,60          | 797,58 |
| Kontzejuak       | 35,28             | 24,92  |
| Mankomunitateak  | 103,64            | 95,53  |
| Gastuak, guztira | 1.151,52          | 918,03 |

Hona hemen toki entitateen egoera finantzarioaren adierazle batzuk:

|  | 2007    | 2006    |
|--|---------|---------|
| Aurrekontuaren emaitza (milioiak)                      | -65,49  | 36,63   |
| Aurrekontuaren emaitza doitua (milioiak)               | -21,92  | 51,30   |
| Aurrezki gordina (milioiak)                            | 102,39  | 119,21  |
| Finantza-zama osoa (milioiak)                          | 31,63   | 33,70   |
| Aurrezki garbia (milioiak)                             | 70,76   | 85,51   |
| Kapitaleko diru-sarrerak                               | 440,78  | 323,33  |
| Inbertsioak (6. eta 7. kapituluak)                     | 563,79  | 350,31  |
| Inbertsioen finantzaketa-beharrak                      | 123,01  | 26,98   |
| Zorpetze-maila   | % 4,90  | % 5,34  |
| Zorpetze-muga  | % 15,87 | % 18,88 |
| Zorpetze-ahalmena                                      | % 10,97 | % 13,54 |
| Zorra, guztira (milioiak)                              | 271,93  | 233,6   |
| Zor bizia biztanleko                                   | 457     | 397     |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (milioiak) | 56,87   | 119,50  |

Toki sektore publikoaren aurrekontu-emaiza - 65,49 milioi eurokoa izan zen 2007an –horietatik - 47 milioi Iruñeari dagozkio–, eta sortu da 2007an ez delako izan ekitaldi horretan eginiko inbertsioen finantzaketarik. Inbertsio horien zati bat, zehazki 33 milioi, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakinarekin finantzatu ziren.

2007ko aurrekontuaren emaitza doitua -21,92 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko 51,3 milioi euroko superabit doituren aldean. Horrek islatzen du 2007an finantzaketarik gabe eginiko gastuen zenbatekoa.

2007an, Nafarroako toki entitateen aurrezki gordinak 102,39 milioi euro egin zituen. Horrek adierazten du funtzionamendu-gastuak finantzatu ondoren sorturiko baliabide arrunten soberakina. 2006koarekin alderatuta, aurrezki gordinak ehuneko 14 egin zuen behera. Horren arrazoi nagusia izan zen funtzionamendu gastuen areagotzea diru-sarrera arruntena baino handiagoa izan zela.

Aurrezki garbiak –aurrezki gordinari zama finantzarioa kenduta kalkulatzen da– 70,76 milioi euro egin zuen; hain zuzen, 2006an baino ehuneko 17 gutxiago.

2007an eginiko inbertsioak 2006an eginikoak baino ehuneko 61 handiagoak izan ziren, eta horien ehuneko 78 kapitaleko diru-sarrerekin finantzatu ziren –inbertsioak besterentzea, kapital-dirulaguntzak eta eragiketa finantzarioak–, eta 123 milioi euroko finantzaketa beharrak sortu ziren (2006an 26,98 milioi eurokoak izan ziren).

2007an, toki entitateen zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 4,90ekoa izan zen, eta zorpetze-ahalmena haien ehuneko 10,97koa zen. Zorra 271,93 milioi eurokoa izan zen, 2006an baino ehuneko 16 gehiago, eta haren batez beste epemuga 16 urtekoa da.

Zorren ehuneko 93 udalerriei dagokie, ehuneko 4, kontzejuei, eta gainerako ehuneko 3a, berriz, mankomunitate eta udal elkarteei.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratua 56,87 milioi eurokoa da, 2006an baino ehuneko 52 gutxiago. 2006ko gerakin orokorreko 33 milioi 2007an eginiko inbertsioak finantzatzera bideratu ziren.

Laburbilduz, toki sektore publikoak funtzionamendu-gastuak eta zama finantzarioaren gastuak estaltzeko baliabide arruntak sortu zituen, osoko zorpetze-maila baxua zen –diru-sarrera arrunten ehuneko 5, zorpetze-muga baino ia 11 puntu gutxiago–, eta bazuen likidezia hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko; izan ere, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 56,87 milioi eurokoa zen.

Bestalde, defizit doitua 21,92 milioi eurokoa izan zen, eta inbertsio-gastuen finantzaketa-beharrak 123 milioi eurokoak izan ziren.

2006ko ekitaldiarekin alderatuta, ikusi dugu 2007an toki entitateen egoera finantzarioak okerrera egin duela; izan ere, aurrezki gordinak eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina murriztu egin ziren eta zor bizia areagotu egin zen.

## VI. GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion gomendioak:

Toki sektore publikoak egitura eta giza baliabide eta baliabide finantzario nahikoak dituzten toki entitatez osatuak egon behar dute, zerbitzu publikoen kudeaketa eraginkorra eta efizientea izan dadin. Hori dela eta, hona hemen Comptos Ganberaren gomendioak:

- *Lehentasunez eta presaz aplikatu daitezela Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri administratibo eta legegintzakoak, herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizientea emateko, eta xede hori erdiesteko behar diren finantza baliabideak edukitzeko.*

- *Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz.*

- *Osa daitezela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen bitarteko juridiko eta antolamenduzkoak, eta, horrela, arauetako eskakizunak egokitu ditzaten Nafarroako toki entitateen taxuketa anitzera.*

- *Toki entitateen eta euren mendeko erakundeen –erakunde autonomoak eta merkataritza-sozietate publikoak– egoera-orriak eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, toki sektore publiko osoaren jarduerari buruzko ikuspegi osoa emateko.*

- *Tokiko kontabilitatearen berrantolaketa ekin behar zaio, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorri egokitze aldera, komenigarria baita administrazio publiko ezberdinen arteko kontabilitate-normalizazioa.*

- *Idazkarien eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsak betetzeko prozesua desblokeatu behar da, lanpostu horiek funtsezkoak baitira Toki Administrazioan ezinbestekoak diren zenbait funtzio publiko gauzatzeko; hain zuzen, idazkaritzakoak, barne-*

*kontrolekoak eta –fiskalizaziokoak, aholkularitzakoak, kudeaketa ekonomiko-finantzariokoak, aurrekontuen kudeaketari buruzkoak eta kontabilitateari buruzkoak.*

• *Toki entitateen erregistroa gaurkotu behar da, toki entitatearen mendeko erakunde publikoei eta fundazioei buruzko informazioa jaso dezaten.*

Toki entitateei dagozkien gomendioak:

• *Erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola egin behar da, aplikatzekoa zaion legerian ezarritako hedapenarekin, kontu-hartzaitzaren, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegietatik.*

• *Udal ondasun eta eskubideen inbentarioa egitea, baloratuta eta eguneratuta, eta ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoekin lotu behar da. Horri dagokionez, komenigarria litzateke toki entitate guztientzat prozedura orokor batzuk zehaztea eta inbentarioak kudeatzeko programa informatiko bat diseinatzea, kontabilitatearekin konektatuta egonen dena, toki entitateek behar dituzten baliabideak izan ditzaten haien ondasunen inbentarioak egin, mantendu eta eguneratzeko.*

• *Lurzoruaren udal ondarearen kudeaketa egitea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta udal ondasunen erregistro orokorrean adieraztea eta zehaztea zeintzuk diren lurzoru-ondarekoak, baita hirigintza arloko legerian ezarritako xedeei lotuta daudela ere.*

• *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea, eta bertan jasotzea Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako xedeetarako justifikaturiko sarrerak eta irteerak.*

• *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

Txosten hau auditore M<sup>a</sup>. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko apirilaren 20an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 7an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Atarrabiako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea. Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa (14. or.).
- IV. Iritzia (15. or.).
  - IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (15. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (15. or.).
  - IV.3. Finantza-egoera 2008ko abenduaren 31n (15. or.).
  - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (16. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena (17. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (17. or.).
  - V.2. Aurrekontu emaitza (18. or.).
  - V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria (18. or.).
  - V.4. Egoera-balantzea (19. or.).
  - V.5. Ratioak (20. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (21. or.).
  - VI.1. Alderdi nagusiak (21. or.).
  - VI.2. Lansariak (21. or.).
  - VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen alorreko gastuak (22. or.).
  - VI.4. Inbertsioak (23. or.).
  - VI.5. Diru-sarrerak (24. or.).
  - VI.6. Inbentarioa, ibilgetua (25. or.).
  - VI.7. Hirigintza (25. or.).

I eranskina: ratioak.

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)

#### I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

2008ko urtarrilaren 1ean, udalak 10.462 biztanle ditu, eta hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2008ko abenduaren 31n:

| Aitortutako betebeharrak | Aitortutako eskubideak | Langileak, 2008-12-31n |
|--------------------------|------------------------|------------------------|
| 10.926.119               | 9.542.088              | 106                    |

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketak.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean parte hartzen du.

Toki entitateari 2008ko ekitaldian aplikatzeko den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezkontasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean sartu ditugu berraztertu ditugun finantzen egoera-orriak. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Eranskin bat ere sartu dugu, txostenean erabilitako ratio nagusiak jasotzen dituena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, beraien lankidetzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Atarrabiako Udalaren Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2008an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Atarrabiako Udalaren egoera finantzarioa 2008ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Atarrabiako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen egoera-balantzea.
- Entitatearen galera eta irabazien kontua.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Comptos Ganberak txosten berariazkoa egin du 2009an Iruñerriko udalek 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenen fiskalizazioari buruz. Atarrabiako Udala Iruñerrian dagoenez gero, gure azterketan ez ditugu jaso udalak 2008an egin zitzakeen hirigintza-hitzarmenak, txosten horren xede baitira.

#### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Atarrabiako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

##### IV.1. UDALAREN 2008KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratzen. Hori dela eta, ezin izan dugu egiztatu egoera-balantzeko "Ibilgetua" izeneko ataleko saldoaren arrazoizkotasuna. Saldo hori, 2008ko abenduaren 31n, 25.827.757 eurokoa da.

700.000 euroko mailegu bat –2008ko aurrekontuan jaso eta 2009ko martxoan dirutan sartua– 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari egotzi zaio, eta horrek urratu egiten du mailegu horri aplikatzekoak zaizkion kontabilitate publikoaren printzipioetan aurreikusitakoa.

Lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga 2008an likidatu ez izanak eragotzi du 2008ko aurrekontu-likidazioari egozteia –2009an likidatu da, 186.289 euroan–.

Aurreko lerrokadan aipaturiko salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinengatan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauak jarraituz.

##### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioa errespetatuz egin dela.

##### IV.3. FINANTZA-EGOERA 2008KO ABENDUAREN 31N

Atarrabiako Udalaren finantza-egoerak ezaugarri du diru-sarrera arruntak ez direla aski izan ekitaldiko funtzionamendu gastuak eta finantza-zama finantzatzeko, diruzaintzako gerakina negatiboa izan dela eta zorpetze handia are handiagoa izan daitekeela 2008an esleitu den kultur etxe berrian egin beharreko inbertsio handiaren eraginez. Hor-taz, gure ustez lehentasuna du finantza-bideragarritasunari buruzko plan bat egiteak.

Ondotik doaz 2008ko ekitaldiari buruzko zenbait datu ekonomiko, nahiz eta kontuan hartu behar den horiengan eragina izan dezaketela kontu orokorrari buruzko iritzian aipatutako salbuespenek:

Behin betiko aurrekontua 11.441.386 eurokoa izan da. Ehuneko 21 igo da 2007arekin alderatuta, kapital-eragiketen aurreikuspenen igoeragatik batez ere.

Ekitaldian aitortutako betebeharrak 10.926.120 euro egin dute, eta aitortutako eskubideek, berriz, 9.542.088 euro; ondorioz, betetze maila ehuneko 96koa izan da gastuetan eta ehuneko 83koa diru-sarreretan.

Gastu arruntek gastu osoaren ehuneko 67 egiten dute, eta ehuneko 8 igo dira 2007arekin alderatuta. Gastu horien ehuneko 59 langile-gastuei dagokie, eta ehuneko 32, berriz zerbitzuei eta gastu arrunten erosketei.

Diru-sarrera arruntek ekitaldiko diru-sarrera osoen ehuneko 78 egiten dute, eta honela banatzen dira: ehuneko 43 tributu bidezko diru-sarreretatik heldu dira, ehuneko 56 transferentzia arrunte-tatik eta gainontzekoa, ehuneko 1, ondare bidezko diru-sarreretatik. 2007arekin alderatuta, ehuneko 1 igo dira.

Kapital-eragiketak, hala inbertsioetakoak nola diru-sarreretak, ehuneko 97 eta ehuneko 100 igo dira hurrenez hurren, 2007ko ekitaldiarekin alderatuta, kultu etxe berriko obrak hastean.

2008ko aurrezki garbia negatiboa izatera igaro da (256.134 euro). 2007an, aldiz, positiboa zen (161.110 euro).

Diruzaintzako gerakina positiboa zen 2007an (1.174.147 euro), eta ekitaldi honetan, berriz, negatiboa (394.718 euro).

Azkenik, horra, ondoko datuei dagokienez, zer ondorio izanen lituzkeen aurrekontuaren betetzean lurren balioaren igoeraren gaineko zerga 2009an kitatu izanak (186.289 euro) nahiz 700.000 euroko mailegua 2008ko aurrekontuan diru-sarrera gisa aitortu ez izanak:

| Kontzeptua                       | 2008ko Kontu Orokorraren arabera | Salbuespenen ondorioak |
|----------------------------------|----------------------------------|------------------------|
| Aurrekontu-emaiza doitua         | -742.403                         | -1.256.114             |
| Diruzaintzako gerakina, guztira  | -394.718                         | -908.429               |
| 2008ko abenduaren 31ko zorpetzea | 4.486.690                        | 3.786.690              |
| Zorpetze-maila                   | % 6,74                           | % 6,58                 |
| Zorpetze-muga                    | % 3,29                           | % 5,66                 |

#### IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, bete gabe jarraitzen dute aurreko txostenetako administrazio eta kontabilitate arloko zenbait gomendiok. Ondokoak, besteak beste:

- Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.
- Oroitidazkia taxutu behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste

bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jasota.

- Kontrolak ezarri behar dira, baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea bete dadin ziurtatzeko modukoak.

- Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari egokitu beharra dago; horretarako, eta kasua bada, hirigintza-plan berria onetsi behar da, eta aintzat hartu behar dira Lurzoruaren Udal Ondarea eratzeari eta horren jarraipena egiteari buruzko jarraibideak.



**V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA****V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

| Gastuen kapituluak                            | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko betebehargarbiak | Betetako (%) | Ordainketa kitatuak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---------------------|-----------|-----------------------------|------------------------------|--------------|---------------------|---------------|---------------------|
| Pertsonal-gastuak                             | 4.657.532           | -13.209   | 4.644.323                   | 4.374.125                    | % 94         | 4.290.922           | % 98          | 83.203              |
| Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak | 2.311.165           | 1.500     | 2.312.665                   | 2.336.606                    | % 101        | 1.967.839           | % 84          | 368.767             |
| Finantza-gastuak                              | 223.154             | 0         | 223.154                     | 181.450                      | % 81         | 180.330             | % 99          | 1.120               |
| Transferentzia arruntak                       | 497.424             | -4.300    | 493.124                     | 467.363                      | % 95         | 292.327             | % 63          | 175.036             |
| Inbertsio errealak                            | 2.660.733           | 780.191   | 3.440.924                   | 3.247.700                    | % 94         | 1.101.302           | % 34          | 2.146.398           |
| Finantza-pasiboak                             | 327.196             | 0         | 327.196                     | 318.876                      | % 97         | 318.876             | % 100         | 0                   |
| Gastuak, guztira                              | 10.677.204          | 764.182   | 11.441.386                  | 10.926.120                   | % 95         | 8.151.596           | % 75          | 2.774.524           |

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

| Diru-sarreren kapituluak                              | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Betetako (%) | Kitatutakoa, guztira | Likidatua (%) | Kobratzeko dagoena |
|---|---------------------|-----------|-----------------------------|------------------------------|--------------|----------------------|---------------|--------------------|
| Zuzeneko zergak                                       | 2.450.052           | 0         | 2.450.052                   | 1.974.811                    | % 81         | 1.867.270            | % 95          | 107.541            |
| Zeharkako zergak                                      | 319.000             | 0         | 319.000                     | 256.483                      | % 80         | 216.065              | % 84          | 40.418             |
| Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 826.452             | 0         | 826.452                     | 954.002                      | % 115        | 846.904              | % 89          | 107.098            |
| Transferentzia arruntak                               | 4.298.724           | 0         | 4.298.724                   | 4.138.550                    | % 96         | 3.879.517            | % 94          | 259.033            |
| Ondareko diru-sarrerak eta aprob. kom.                | 131.500             | 0         | 131.500                     | 98.439                       | % 75         | 18.439               | % 19          | 80.000             |
| Inbertsio errealak besterentzea                       | 0                   | 0         | 0                           | 0                            | 0            | 0                    | % 0           | 0                  |
| Kapital-transferentziak                               | 1.696.163           | 41.447    | 1.737.610                   | 1.419.803                    | % 82         | 213.270              | % 15          | 1.206.533          |
| Finantza-aktiboak                                     | 0                   | 722.735   | 722.735                     | 0                            | 0            | 0                    | % 0           | 0                  |
| Finantza-pasiboak                                     | 955.313             | 0         | 955.313                     | 700.000                      | % 73         | 0                    | % 0           | 700.000            |
| Diru-sarrerak, guztira                                | 10.677.204          | 764.182   | 11.441.386                  | 9.542.088                    | % 83         | 7.041.465            | % 74          | 2.500.623          |

## V.2. AURREKONTU EMAITZA

| Kontzeptua  | 2008         | 2007        |
|---|--------------|-------------|
| Aitortutako eskubideak  | 9.542.088    | 8.407.198   |
| (Aitortutako betebeharrak)  | (10.926.119) | (8.639.408) |
| Aurrekontu-emaiza   | -1.384.031   | -232.210    |
| <b>DOITZEAK</b>   |              |             |
| (Finantzaketaren desbideraketa positiboak)  | (33.325)     | (549.186)   |
| Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboa  | 565.571      | 38.881      |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko kredituak  | 109.382      | 113.293     |
| Aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko betebeharrak | 0            | 0           |
| Aurrekontu-emaiza doitua  | -742.403     | -629.222    |

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

| Kontzeptua  | 2008      | 2007      |
|---|-----------|-----------|
|   | 2.655.787 | 1.512.028 |
| Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia           | 2.501.335 | 1.162.119 |
| Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak          | 916.636   | 833.492   |
| Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak                         | 69.689    | 275.929   |
| Ordainketen itzulketak                                    | 5.595     | 564       |
| (Dirubilketa zaileko eskubideak)                          | (812.272) | (681.427) |
| (Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)                        | (25.196)  | (78.649)  |
|   | 3.435.329 | 1.423.056 |
| Behin betiko aurrekontua Gastuak: Aurtengo ekitaldia      | 2.774.580 | 1.094.448 |
| Behin betiko aurrekontua Gastuak: itxitako ekitaldiak     | 218.130   | 112.584   |
| Diru-sarreraren itzulketak                                | 6.318     | 5.607     |
| (Aplikatzeko dauden gastuak)                              | 0         | -5.864    |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak                               | 436.301   | 216.281   |
|   | 345.667   | 1.046.018 |
| -desbideraketa metatu negatiboak                          | 39.157    | 39.157    |
|   | -394.718  | 1.174.147 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 33.325    | 549.187   |
| Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina                 | 0         | 0         |
| Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina               | -428.043  | 624.960   |

V.4. EGOERA-BALANTZEA<sup>1</sup>

## AKTIBOA

| Izena  | 2008              | 2007              | Aldea            |
|--|-------------------|-------------------|------------------|
| <b>A) IBILGETUA</b>  | <b>25.827.757</b> | <b>22.552.060</b> | <b>3.275.697</b> |
| 1. Ibilgetu materiala  | 19.183.595        | 16.417.863        | 2.765.732        |
| 2. Ibilgetu ez-materiala                                     | 1.162.736         | 1.060.546         | 102.190          |
| 3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak         | 5.478.380         | 5.070.605         | 407.775          |
| 4. Herri ondasunak   | 1.578             | 1.578             | 0                |
| 5. Finantza-ibilgetua  | 1.468             | 1.468             | 0                |
| <b>C ZIRKULATZAILEA</b>                                      | <b>3.849.691</b>  | <b>3.323.988</b>  | <b>525.703</b>   |
| 7. Izakinak  | 0                 | 0                 | 0                |
| 8. Zordunak  | 3.493.255         | 2.052.549         | 1.440.706        |
| 9. Finantza-kontuak  | 356.436           | 1.271.439         | -915.003         |
| 10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak. | 0                 | 0                 | 0                |
| 11. Aplikatzeko dagoen emaitza                               | 0                 | 0                 | 0                |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>                                      | <b>29.677.448</b> | <b>25.876.048</b> | <b>3.801.400</b> |

## PASIBOA

| Izena  | 2008              | 2007              | Aldea            |
|--|-------------------|-------------------|------------------|
| <b>A FUNTS BEREKIAK</b>  | <b>21.730.157</b> | <b>20.262.914</b> | <b>1.467.243</b> |
| 1. Ondarea eta erreserbak  | 13.882.548        | 13.400.787        | 481.761          |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)                             | 47.440            | 481.761           | -434.321         |
| 3. Kapital-dirulaguntzak   | 7.800.169         | 6.380.366         | 1.419.803        |
| <b>C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK</b>                                      | <b>4.486.690</b>  | <b>4.105.566</b>  | <b>381.124</b>   |
| 4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak           | 4.486.690         | 4.105.566         | 381.124          |
| <b>D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>                                   | <b>3.460.526</b>  | <b>1.507.568</b>  | <b>1.952.958</b> |
| 5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak   | 3.435.329         | 1.428.919         | 2.006.410        |
| 6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak | 25.197            | 78.649            | -53.452          |
| <b>PASIBOA, GUZTIRA</b>  | <b>29.677.373</b> | <b>25.876.048</b> | <b>3.801.325</b> |

Ikus VI.I.I atala (Aurrekontuaren alderdiak eta kontu orokorra). 5. paragrafoa

## V.5. RATIOAK

| Adierazlea  | 2002   | 2003    | 2004   | 2005    | 2006    | 2007   | 2008    |
|---|--------|---------|--------|---------|---------|--------|---------|
| Diru-sarreraren betetze-maila                     | % 87   | % 86    | % 90   | % 88    | % 85    | % 89   | % 83    |
| Gastuen betetze-maila                             | % 84   | % 84    | % 95   | % 83    | % 83    | % 91   | % 95    |
| Kobrانتzen betetzea                               | % 88   | % 86    | % 86   | % 88    | % 88    | % 86   | % 74    |
| Ordainketen betetzea                              | % 89   | % 92    | % 84   | % 89    | % 93    | % 87   | % 75    |
| Zorpetze-maila                                    | % 4,78 | % 4,85  | % 5,65 | % 5,92  | % 6,42  | % 7,15 | % 6,74  |
| Zorpetze-muga                                     | % 9,23 | % 10,40 | % 6,50 | % 10,43 | % 18,82 | % 9,34 | % 3,29  |
| Zorpetze-ahalmena                                 | % 4,45 | % 5,55  | % 0,85 | % 4,51  | % 12,40 | % 2,19 | % -3,45 |
| Aurrezpen garbia                                  | % 4,45 | % 5,55  | % 0,85 | 4,51    | % 12,40 | % 2,19 | % -3,45 |
| Langileriaren indizea                             | % 53   | % 49    | % 41   | % 49    | % 49    | % 46   | % 40    |
| Inbertsioaren indizea                             | % 10   | % 17    | % 31   | % 17    | % 18    | % 17   | % 30    |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna                    | % 34   | % 38    | % 50   | % 53    | % 52    | % 51   | % 58    |
| Diru-sarrerak biztanleko                          | 605    | 717     | 840    | 817     | 809     | 822    | 912     |
| Gastuak biztanleko                                | 580    | 700     | 885    | 740     | 791     | 845    | 1.044   |
| Diru-sarrera arruntak biztanleko                  | 543    | 615     | 618    | 643     | 745     | 719    | 709     |
| Gastu arruntak biztanleko                         | 503    | 560     | 587    | 587     | 618     | 668    | 703     |
| Tributu bidezko diru-sarrerak biztanle bakoitzeko | 239    | 290     | 282    | 288     | 378     | 334    | 304     |
| Finantza-zama biztanleko                          | 26     | 30      | 35     | 38      | 48      | 51     | 48      |
| Zorra biztanleko                                  | 261    | 291     | 339    | 412     | 375     | 401    | 392     |

## VI.1. ALDERDI NAGUSIAK

### VI.1.1. Aurrekontuaren alderdiak eta kontu orokorra

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak aurrekontua aurkeztu, onetsi eta kitatzeko epeak ezartzen ditu.

Udalak ez ditu epe horiek betetzen. Osoko Bilkurak 2008ko uztailaren 31n onetsi zuen 2008ko ekitaldirako hasierako aurrekontua, eta behin betiko aurrekontua 2008ko azaroaren 26ko NAO n argitaratu zen. 2008ko ekitaldiko kontu orokorren espedientea, berriz, 2009ko abenduaren 29an onetsi zen.

Lege horrek ezartzen duenez, maileguk izaera mugatzailea eta loteslea dute, eta aurrekontua betetzeko oinarriek aurrekontua kudeatzeko faseen onesperako administrazio-prozesuak eta organo eskudunak ezartzen dituzte. 2. kapituluaren Ondasun aruntetako eta zerbitzuetako gastuak aitortutako betebeharrak behin betiko aurreikuspenek baino 23.941 euro gehiago egiten dute, eta 2. kapituluaren Ondasun aruntetako eta zerbitzuetako gastuak eta 6. kapituluaren Inbertsio errealak ez dira beti errespetatzen lotura juridikoko multzoak.

2008ko abenduaren 23an onetsi ziren kreditu berezietako eta kreditu-gehikuntzetako aurrekontu-aldaketak, baina espedientean ez da jasota ageri kontu-hartzeari buruzko txostenik ez, kreditu berezien kasuan, publizitateari buruzko izapideak bete ote diren.

2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzean pasiboarena baino handiagoa da aktiboaren zenbatekoa (75 euro). 2009an zuzendu da.

Diruzaintzako gerakina negatiboa izan da lehen aldiz azken ekitaldietan (394.718 euro).

Kontu orokorrari buruzko alderdi nagusiei buruzko oroitidazkia egin gabe jarraitzen du Udalak.

*Hona gure gomendioak:*

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan oneste aurrekontuak, kudeaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen.*

- *Aurrekontua aldatzeko espediente guztietan eranstea kontu-hartzailetzaren nahitaezko txostena, eta, araudiak hala ezartzen duenean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

- *Kontu orokorra lege ezarritako epean oneste.*

- *Ziurtatzea baimendutako kredituen izaera mugatzaile eta loteslea eta aurrekontua urtean betetzeari buruzko printzipioa.*

- *Aurrekontua betetzeko faseak kudeatzeko prozedurak betetzea.*

- *Egiatzea aplikazio informatikoaren bidez lortutako finantzen egoera-orriak zuzenak direla eta haien arteko koherentzia gordetzen dutela.*

- *Zordunen kontuen saldoak aztertzea, zuzenak direla egiaztatuta, eta kobratzeko egin beharreko kudeaketa-zuzemenak egitea.*

- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, diruzaintzagerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko.*

- *Oroitidazkia taxutu behar da finantzen egoera-orriak osatzen dituzten egoera-orrietako beste bat izatearen ikuspegitik, eta informazio garrantzitsu guztia bertan jasota.*

### VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Udalak ez du dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrik. Egindako azterlanean ikusten denez, kasu batean, dirulaguntzak esleitzeko ebazpenak prozedura-akatsak ditu, ez baita erantsi onetsitako proposamenaren justifikazio osoa. Ez dugu jasota aurkitu beste deialdi batzuetan beti betetzen denik oinarrietan eskabideak aurkezteko gehienezko ezarritako epea.

*Hona gure gomendioak:*

- *Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra oneste.*

- *Udalak dirulaguntzak emateko oinarrietan ezarritako baldintzak zorrotz betetzen direla egiaztatzea.*

Nafarroako Auzitegi Nagusiak epai bidez ezarri zuen 2008an zehaztu gabe dagoela "Hilarión Eslava" Musika Eskolaren izaera juridikoa eta, gaur egun, ezin dela tokiko erakunde autonomotzat hartu.

*Hona gure gomendioak:*

- *Burlata eta Atarrabiako "Hilarión Eslava" Udalen Musika Eskolaren izaera juridikoa zehaztea.*

## VI.2. LANSARIAK

Langileen atalean aitortutako betebeharrak 4.374.125 euro egiten dute, hau da, 2008an sortutako gastu guztien ehuneko 40 eta gastu arruntaren ehuneko 59. 2007ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 9 egin dute gora.

Hona hemen haien azalpen banakatuak:

|  | Aitortutako<br>betebeharrak |
|--|-----------------------------|
| 10 Goi karguak   | 136.226                     |
| 13 Langile kontratudunak   | 2.815.757                   |
| 16 Enplegu-emailearen kargurako kuotak,<br>prestazioak eta gizarte-gastuak | 1.422.142                   |

Osoko Bilkurak 2008ko uztailaren 31n onetsi zituen 2008ko ekitaldirako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda. Ez da jasota ageri, aurreko ekitaldietan legez, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu izana. 2008rako plantilla organikoko 106 lanpostuetatik, 75 langile finkoenak dira (funtzionarioak eta lan-kontratudunak), eta gainontzeko 31 lanpostuak lanpostu hutsak dira (horietarik 28 aldi baterako beteta daude, eta 3, aldiz, bete gabe).

Osoko Bilkurak 2008ko martxoaren 31n onetsi zuen lanpostuen azalpenari eta balorazioari buruzko azterlaneko emaitzak aplikatze aldera Langile Batzordeak eginiko proposamena, eta plantilla organikoan zenbait lanposturen osagarriak aldatzea baimendu zuen.

2008an zehar aurreko ekitaldietako deialdiak ebatzi dira (guztira, 14 lanpostu), eta beste 3 lanposturako hautaprobek deialdiak egin dira, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren oroitidazkiaren arabera.

Egindako lanetik ondorio hauek atera ditugu:

- Sailkapen ekonomikoari dagokionez, 13. atalean –lan-kontratudunak– gastu berekia nahiz funtzionarioena jasotzen da, 271/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako garapena aintzat hartu gabe. 10. atalean –goi karguak–, berriz, alkatetzaren diru-sarrerak nahiz zinegotziei osoko bilkuretara, kide anitzeko organoen bileretara eta informazio-batzordeetara joateagatik esleitutakoa kontabilizatzen dira. Funtzionamendu gastu diren neurrian, ordea, gastuen aurrekontuko 2. kapituluari jaso beharko lirakeke.

- Ekitaldiko hiru deialdietatik, bi aztertu dira. Bi horietan, oposizio-lehiaketaren sistema baliatu da.

- Nominen aplikazio informatikoko datuak ezin dira automatikoki irauli kontabilitate orokorreko programan, eta eskuz egin behar da lan hori.

*Hona gure gomendioak:*

- *Langileen gastuen sailkapen ekonomikoa garatzea, aurrekontu-egituraren arlorako ezarritakoaren arabera.*

- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea udaleko plantilla organikoaren onespina.*

- *Oposizio sistema baliatzea, oro har, langileak hautatzeko, behar bezala arazoituta oposizio-lehiaketaren sistema baliatzen baldin bada.*

- *Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea, nominen aplikazioak datuak automatikoki pasa ditzan kontabilitatera, eskuz eginez gero egin daitezkeen akatsak saihesteko.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN ALORREKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuek gora egin dute 2008an 2.336.606 euro izateraino. Ehuneko 101 bete da, maileguren izaera mugatzailera urratuta. Kapitulu horrek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 21 egiten du, eta gastu arruntaren ehuneko 32. 2007arekin alderatuta, ehuneko 6 igo dira.

Hona gastu horiek zehaztuta:

|   | Betebehar<br>aitortuak |
|---|------------------------|
| Errentamendua                             | 34.445                 |
| Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza  | 332.425                |
| Materiala, hornidurak eta bestelakoak     | 1.945.784              |
| Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak | 1.187                  |
| Argitalpen gastuak                        | 22.765                 |

Gure azterlanean detektatu dugu argiteria konpontzeko kontusailean zenbait faktura jaso direla (30.000 euro inguru egiten dutenak, zerbitzuak direla eta), baina ez da jasota ageri horiek kontratatzeke inolako prozedura baliatu denik. Orobat nabarmendu beharra dago finantza-entitate batek ordainagiriak kudeatzeagatik jasotzen duen dirukopuru handia (55.888 euro).

*Hona gure gomendioak:*

- *Kontratazio prozedura egokia baliatzea zerbitzuak kontratatzeke, baldin eta zenbatekoaren arabera araudiak prozedura jakin bat baliatzera behar badu.*

- *Ordainagiriak kobratzeko kudeaketaren kosta aztertzea.*

#### VI.4. INBERTSIOAK

2008. urterako aurreikusitako inbertsioen ehuneko 94 bete da, eta 3.247.700 euro egin dute, hain zuzen ere 2008ko ekitaldian aitorturiko bete-behar guztien ehuneko 30. 2007. urtearen aldean, ehuneko 124 egin dute gora.

Aitortutako bete-beharren ordainketak erregistratutako inbertsioen ehuneko 34 baino ez du egiten 2008ko abenduaren 31n.

Kapitulu horretako kontusailik esanguratsuenen Kultur Etxe eta Liburutegi berriarena da. Aurrekontuan 1.637.150 euro jarri dira horretarako ekitaldi honetan; horietarik 1.623.334 euro aitortu dira, eta 216.269 euro ordaindu.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espedienteak barne:

| Kontratua   | Eragiketa Kontratu     | Prozedura   | Zenbatekoa (BEZik gabe) |
|---|------------------------|---|-------------------------|
| Atarrabiako Kultur Etxe berria  | Obra                   | Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti         | 4.728.885               |
| "Hilarión Eslava" musika patronatuari buruzko hausnarketa estrategikoari buruzko azterlan teknikoa egitea | Laguntzarako kontratua | Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa | 22.000                  |
| Sakanguneak eta igarobide beheratuak egitea Atarrabiako zenbait tokitan                                   | Obra                   | Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa | 66.735                  |

- **Kultur etxe berria:**

Obra kontratatzeke administrazio klausula partikularren orria 2008ko otsailean onetsi zen, 5.037.767,83 euroko zenbatekoan (BEZik gabe) eta 22 hilabeteko gehienezko epearekin. Argitaratu ondoren, 18 eskaintza aurkeztu ziren Nafarroako Kontratazioaren Atarian. 2008ko uztailaren 31n esleitu zen, lizitazio prezioaren ehuneko 6,13ko bajarekin, 4.728.962,21 eurotan (BEZik gabe) eta 21 hilabeteko epearekin.

Espedientea aztertuta, ez da txosten juridikorik jasota ageri, ez da mailegu-erreserbarik egin eta esleipena ez da Kontratazioaren Atarian argitaratu.

Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak eman ditu 2008ko abenduaren 31n proiektu hori finantzatzeko, bi milioi euro hain zuzen ere.

- "Hilarión Eslava" musika patronatuari buruzko hausnarketa estrategikoari buruzko azterlan teknikoa.

Patronatuari buruzko azterketan ikus daiteke bat datozela esleipenaren data eta fakturaren data, eta kaudimena eta ahalmen teknikoa egiaztatzeke dokumentazioa eman aurrekoa dela esleipenaren data. Kontratua ez da administrazio klausulen orrietan ezarritakoaren arabera egin.

- Sakanguneak eta igarobide beheratuak egitea

Obra horiek Toki Administrazioaren Departamentuaren dirulaguntza dute (44.433 euro).

Ez da jasota ageri esleipena Kontratazioaren Atarian iragarri izana, eta kontratua ez da administrazio klausulen orrietan ezarritakoaren arabera egin.

- 2008ko aurrekontuan gutxienez ere 63.833 euroko fakturak, 2009ko ekainean jaulkiak, jaso dira.

- 2008ko data daraman faktura bat kontabilizatu da, 92.438 eurokoa, 2009an jaulkitako "ziurtagirien" aurka ordaindu dena.

*Hona gure gomendioak:*

- *Administrazio kontratazioko espedienteak izapidetzea kontratuei buruzko legediak ezarritako eskakizun guztiak betez.*

- *Gastuak sortzapen-printzipioari jarraituz kontabilizatzea.*

- *"Hilarión Eslava" musika patronatuari buruzko hausnarketa estrategikoari buruzko azterlan teknikoa egiteko gastuaren sailkapen ekonomikoa aztertzea.*

#### VI.5. DIRU-SARRERAK

2008ko ekitaldian aitortutako eskubideek 9.542.088 euro egiten dute, eta betetze maila ehuneko 83koa da. Aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 13 igo da.

Hona horren egitura:

|   | Aitortutako eskubideak |
|---|------------------------|
| Zuzeneko zergak                                       | 1.974.811              |
| Zeharkako zergak                                      | 256.483                |
| Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 954.002                |
| Transferentzia arruntak                               | 4.138.550              |
| Ondareko diru-sarrerak eta aprob. kom.                | 98.439                 |
| Kapital-transferentziak                               | 1.419.803              |
| Finantza-pasiboak                                     | 700.000                |

Diru-sarrera arruntek 7.422.286 euro egiten dute; hau da, aitortutako eskubide guztien ehuneko 78. 2007arekin alderatuta, ehuneko 1 igo dira, baina oso portaera ezberdinak dituzte; halatan, zeharkako zergak (EIOZ) ehuneko 55 igo dira, eta transferentzia arruntak, berriz, ehuneko 8; zuzeneko zergak, aldez, ehuneko 16 jaitsi dira, eta ondare bidezko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 14.

Zuzeneko zergen minorazioaren arrazoia da 2008ko ekitaldian ez dela lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga likidatu. 2008rako balioztatutako zenbatekoa, Udalak emandako informazioaren arabera, 186.289 eurokoa da, eta 2009ko aurrekontuari egotzi zaio.

Kapital diru-sarrerak -2.119.803 euro- aitortutako eskubide guztien ehuneko 22 egiten dute. Ehuneko 100 igo dira 2007aren aldean, eta igoeraren arrazoia izan da aitortutako kapital transferentziak igo direla -2007an 457.571 eurokoak izatetik 2008an 1.419.803 eurokoak izatera igaro dira-, batik bat kultur etxe eta liburutegi berria eraikitze aldera jasotako dirulaguntzak direla eta (983.734 euro).

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen laginaren gainean eginiko azterketan ondoko datu adierazgarriak detektatu ditugu:

- Ez da argitaratu prezio publikoak arautzen dituzten arauen eta ordenantzen behin betiko onespina, ez behin betiko testu gisa ez aldaketa gisa ere.

- 2008an ez da likidatu lurren balioaren gehikuntzari buruzko zerga. Likidazioa 2009an egin da.

- Hirigintza-lizentzia gisa erregistratu dira urbanizazio kuotak (gutxienez ere 57.940 euro).

- 54.077 euroko diru-sarrera bat kontabilizatu da, aurreko ekitaldietako kontaketa-aldeak ezerezteagatik. Diru-sarrera hori banku-laburpenak eta kontabilitateko erregistroak berdinkatuz heldu da.

- Finantza-pasiboetan 700.000 euroko mailegu bat aitortu da. Formalki 2009ko otsailean eman zen, eta 2009ako martxoan jaso zen.

*Hona gure gomendioak:*



- *Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea prezio publikoak arautzen dituzten arauen eta ordenantzen behin betiko onespena.*

- *Tasa eta prezio publikoen bitartez ordaintzen diren kostuei buruzko azterlanak gaurkotzea.*

- *Tributu-eskubideak aplikatzekoa den araudi-an ezarritako epean likidatzea.*

- *Prozedurak ezartzea, egiaztatze aldera beste programa informatiko batzuek kudeatutako diru-sarrerak behar bezala sartu direla kontabilitatean.*

- *Aurrekontuan aitortzea zorpetzetik heldu diren diru-sarrerak, entitatearen diruzaintzan sartu direnean, 272/1998 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.*

- *Bankuko kontu korronteen berdinkatzea aldi-an-aldian egitea eta dokumentatzea.*

#### VI.6. INBENTARIOA, IBILGETUA

Udalaren inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da inongo sistemarik ezarri hura gaurkotu eta onesteko.

*Hona gure gomendioak:*

- *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea, eta lurzoruaren udal ondareari dagozkion ondasunak bereizirik jasotzea.*

#### VI.7. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Atarrabiako Udalak 2004an abiarazi zituen plan orokor berria prestatzeko izapideak, eta 2007ko maiatzean jaso bazen ere, onetsi gabe dago. Hortaz, indarrean dago 1996ko plan orokorra.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko inbentariarik, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala.

*Hona gure gomendioak:*

- *Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritakoari egokitzea, eta kasua bada, hirigintza-plan berria onestea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.*

Txosten hau auditore M<sup>a</sup>. Pilar Sola Mateos andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

## Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (26. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (26. or.).
- III. Iritzia (27. or.).
  - III.1. 2009ko aurrekontuaren betetze mailari buruz (27. or.).
  - III.2. Ondare egoera (27. or.).
  - III.3. Legezketasuna (27. or.).
- IV. Finantzen egoera-orriak (28. or.).
  - IV.1. Ekitaldikoa aurrekontuaren likidazioa (28. or.).
  - IV.2. 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (28. or.).
  - IV.3. Eraitzen kontua eta eraitzen banaketa (29. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen bitartez sortu zen; lege hori, berriz, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legearen eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez aldatu zen. Nafarroako Kontseiluak 2000. urtean ekin zion bere jardunari.

2005ean, Nafarroako Kontseiluak bere aurrekontua eta kontuak modu independentean aurkeztu zituen, bere kontabilitatearekin.

2009ko plantilla organikoan bi langile daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria gastu eta diru-sarrera arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Aurrekontuak 589.417 euro egiten du. Gastuen betetzea 358.544 eurokoa da eta diru-sarrerena, berriz, 522.835 eurokoa. Gastuen eta diru-sarreen betetze-mailak ehuneko 61 eta ehuneko 89 dira, hurrenez hurren.

2009ko ekitaldiaren exekuzioaren emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 164.291 euro itzuli zitzaizkion.

Nafarroako Kontseiluak, kontsulta eginkizunak betetz, 49 irizpen eman ditu ekitaldian, eta 19 bilkura egin.

Azterketa-lana 2010eko maiatzean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egitea erraztu duelako.

### II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2009ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena sartu zen 2010eko jarduketa programan.

Lan horrek ondoko helburuak ditu:

- 1. helburua. Egiaztatzea Nafarroako Kontseiluaren gastuen eta diru-sarreen aurrekontuaren betetzeak 2009ko ekitaldian egindako eragiketarako behar bezala islatzen ote dituen.
- 2. helburua. Egiaztatzea aurkezturiko finantzen egoera-orriek modu egokian islatzen ote duten zein den 2009ko abenduaren 31ko ondare-egoera, baita eragiketen emaitzak ere.
- 3. helburua. Egiaztatzea fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun-printzipioa bete ote den.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauari jarraituz egin da lana. Comptos Ganberak bere fis-

kalizazio-eskuliburuan garatuak ditu printzipio eta arau horiek. Lanean, halaber, inguruabarrak kontuan hartuta beharrezkotzat jo ditugun proba eta auditoria-teknika guztiak aplikatu ditugu.

### III. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

#### III.1. 2009KO AURREKONTUAREN BETETZE MAILARI BURUZ.

2009ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala islatzen du ekitaldi horretan egindako jarduera.

#### III.2. ONDARE EGOERA

Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak nahiko ongi agertzen dute finantza eta ondare-egoera 2009ko abenduaren 31n.

#### III.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2009ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasun-printzipioaren araberakoa izan da.

**IV. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**

## IV.1. 2009KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

## Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

|  | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Betebehar aitortuak | Ordaindua (%) |
|--|-----------------------|--------------------------|---------------------|---------------|
| 1. Langile gastuak                         | 181.304               | 181.304                  | 128.227,27          | 128.227,27    |
| 2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 369.113               | 369.113                  | 205.679,77          | 205.679,77    |
| 6. Inbertsio errealak                      | 39.000                | 39.000                   | 24.636,78           | 24.636,78     |
| Gastuak, guztira                           | 589.417               | 589.417                  | 358.543,82          | 358.543,82    |

## Diru-sarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

|                            | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrekontua | Eskubide aitortuak | Kobratua   |
|----------------------------|-----------------------|--------------------------|--------------------|------------|
| 4. Transferentzia arruntak | 549.417               | 549.417                  | 497.340,27         | 497.340,27 |
| 5. Ondareko diru-sarrerak  | 1.000                 | 1.000                    | 857,94             | 857,94     |
| 7. Kapital-transferentziak | 39.000                | 39.000                   | 24.636,78          | 24.636,78  |
| Diru-sarrerak, guztira     | 589.417               | 589.417                  | 522.834,99         | 522.834,99 |

## IV.2. 2009KO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

## AKTIBOA

| Kontzeptua                         | 2008              | 2009              |
|------------------------------------|-------------------|-------------------|
| <b>IBILGETUA</b>                   | <b>68.976,36</b>  | <b>93.613,14</b>  |
| IBILGETU MATERIALA                 | 59.890,60         | 84.527,38         |
| Altzariak eta tresneria            | 14.131,72         | 14.131,72         |
| Informazioa prozesatzeko tresneria | 18.859,68         | 29.382,46         |
| Irudi korporatiboa                 | 5.590,00          | 10.279,00         |
| Bestelako ibilgetu materialak      | 21.309,20         | 30.734,20         |
| IBILGETU EZ-MATERIALA              | 9.085,76          | 9.085,76          |
| Aplikazio informatikoak            | 9.085,76          | 9.085,76          |
| <b>AKTIBO IBILKORRA</b>            | <b>169.714,86</b> | <b>164.291,16</b> |
| DIRUZAINZA                         | 169.714,86        | 164.291,16        |
| Bankuak eta kreditu-erakundeak     | 169.714,86        | 164.291,16        |
| <b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>            | <b>238.691,22</b> | <b>257.904,30</b> |

## PASIBOA

| Kontzeptua   | 2008              | 2009              |
|--|-------------------|-------------------|
| <b>FUNTS BEREKIAK</b>  | <b>68.976,36</b>  | <b>93.613,14</b>  |
| Ondarea  | 68.976,36         | 93.613,14         |
| <b>EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK</b>                           | <b>169.714,86</b> | <b>164.291,17</b> |
| Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itzulketa dela eta | 169.714,86        | 164.291,17        |
| <b>PASIBOA, GUZTIRA</b>                                      | <b>238.691,22</b> | <b>257.904,31</b> |

## IV.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

## 2009ko ekitaldiko emaitza arrunten kontua

| ZORRA      |  | HARTZEKOA                  |            |
|------------|--|----------------------------|------------|
| 128.227,27 | Langile-gastuak                            | Diru-sarrera finantzarioak | 857,94     |
| 205.679,77 | Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak | Transferentzia arruntak    | 497.340,27 |
|            |  | Kapital-transferentziak    | 24.636,78  |
| 188.927,95 | <b>Aurrezkia</b> (emaitza positiboa)       |                            |            |
| 522.834,99 | Guztira                                    | Guztira                    | 522.834,99 |

## Emitza doitua

| ZORRA |                              | HARTZEKOA                            |            |
|-------|------------------------------|--------------------------------------|------------|
|       | Ekonomia- eta ondare-emaitza | Ondarea (inbertsio garbi aktibatuak) | 24.636,78  |
|       |                              | Ekonomia eta ondare-emaitza doitua   | 164.291,17 |
|       | Guztira                      | Guztira                              | 188.927,95 |

## 2009ko ekitaldiko emaitzen banaketa

| ZORRA  |                                    | HARTZEKOA  |            |
|--------|------------------------------------|--|------------|
|        | Ekonomia eta ondare-emaitza doitua | Foru Ogasun publikoa, kreditu itzulketako hartzekoduna | 164.291,17 |
| 291,17 | Guztira                            | Guztira  | 164.291,17 |

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

---



